

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA

2017KO AZAROAREN 15EKO BILKURA ARRUNTAREN

AKTA

Bertaratuak:

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen presidentea eta Kontseiluaren presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Irma Basterra andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.

José Ignacio Bañuelos jauna, Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa.

Jordi Campás jauna, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari gisa.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunderen ordezkari gisa.

Ander Añibarro jauna, Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren ordezkari gisa.

Nekane Zeberio andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

María Guijarro andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Ainhoa Gainberri andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Mila Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Cristina Alba andrea, Eneko Calle jauna, Santiago Martínez jauna, Iñaki Orube jauna, María del Mar Magallón andrea eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Elsa Fuente andrea, Francisco Javier Arellano jauna eta Igone Revilla andrea, garapenerako lankidetzaren alorreko beste euskal eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Noemí de la Fuente Andrea, Kontseiluaren idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluaren Presidenteak gonbidatuta bertaratu dira Ana Rojo andrea, GLEAko aholkulari juridikoa, eta Edurne Bengoechea andrea, GLEAko genero- eta garapen-teknikaria, gai-zerrendako laugarren punturako; Jorge Gutiérrez jauna, bosgarren punturako; eta Gonzalo Fernández jauna, seigarren punturako.

Ez dira etorri:

Juan Antonio Fernández, GEHGko Idazkari Nagusia eta Kontseiluaren presidentea, Lehendakariak eskuordetuta.

Elena Moreno andrea, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari gisa.

Fátima Ansotegi andrea, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Ana Oregi andrea, Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen, berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordearen ordezkari gisa.

Mikel Antón jauna, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.

Maite Etxebarria andrea, Euskal Fondoaren eta Eudelen ordezkari gisa.

Eneko Gerrikabeitia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Patricia Bárcena andrea, Carlos Askunze jauna eta Joseba Andoni Sainz de Murieta jauna, garapenerako lankidetzaren alorreko beste euskal eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Tokia: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2017ko azaroaren 15a, 11:00

Hasiera eman zaio saioari, eta Paul Ortegak ongi-etorria eman die bertaratuei, eta azaldu du Jonan Fernández GLEKeko presidentek ezin izan duela etorri. Jakinarazi du Sofía Marroquíni eskatu zaiola saioa zuzentzea, Kontseiluaren presidenteorde den heinean. Parte-hartzaileen aurkezpena egin da. Honako hau da saiorako gai-zerrenda:

- Aurreko saioko akta irakurtzea eta onartzea.
- Garapenerako Lankidetzaren urte anitzeko (2018-2021) Plangintza Estrategikoaren Orientabide Nagusien proposamena aurkeztea eta eztabaidatzea.
- IV. Gida Planaren lanketa (prozesu- eta metodologia-proposamena aurkeztea, ekarpenak jasotzea eta GLEKek egin beharreko hurrengo urratsei buruz hitz egitea).
- Genero-berdintasuna sustatzen duten antolaketa-aldaketak egiteko lankidetzarako erakundeentzat finkatutako laguntzak arautzen dituen Dekretuari buruzko aginduzko txostena onartzea.
- Euskal lankidetzaren ataria aurkeztea eta hari buruz hitz egitea.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearen “Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politikaren analisia” ikerlana aurkeztea eta hari buruz hitz egitea.
- Beste batzuk; galde-eskeak.

1. AURREKO SAIOKO AKTA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA

Zuzenketa txiki bat egin da 2. orrialdeko datan. Bertaratuek ez dute beste ezer esan, eta, beraz, aho batez onartu da akta.

2. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN URTE ANITZEKO (2018-2021) PLANGINTZA ESTRATEGIKOAREN ORIENTABIDE NAGUSIEN PROPOSAMENA AURKEZTEA ETA EZTABAIDATZEA

Sofía Marroquínek gaia aurkeztu du, eta, jarraian, Paul Ortegak azaldu du, Garapenerako Lankidetzaren Plana lantzeko prozesuan, Garapenerako Lankidetzaren urte anitzeko Plangintza Estrategikoaren Orientabide Nagusiak landu beharra dagoela legeak hala eskatzen duelako, eta horiek Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordera igortzen direla eztabaidatu eta onar ditzaten. Zentzu batean, orientabide horiek Jaurlaritzak datorren plangintzarako dituen asmoak dira. Barnetik landutako proposamen bat da. PNV eta PSE alderdiek adostu dute, gaur egun Jaurlaritzari eusten diotenen. Koordinakundearen ekarpenak jaso ziren proposamena Zuzendaritza Kontseiluari igorri baino lehen, eta hark onartu zuen joan den urriaren 25ean. Une honetan, Jaurlaritzaren barne-txostenak jasotzeko fasean gaude, eta, ondoren, Legebiltzarrerara igorriko da.

Testu sinplea da: sarrera, diagnostiko orokorra, abiapuntuak eta ondorioak (3 orientabide estrategiko, eta hirugarrenaren barruan bost programa aipatzen dira), eta denbora-tarte horretarako aurrekontu-aurreikuspenak.

Aurkezpena banatu da.

Paul Ortegak gogorarazi du garrantzitsuena plana lantzea dela, baina orientabide nagusi horietan Jaurlaritzak planean jasotako lanak gauzatzeko dituen asmoak jasotzen direla.

Sofía Marroquínek oharrak emateko, galderak egiteko eta iritziak adierazteko txanda ireki du.

Javier Arellanok galdetu du ea txostenik eman behar duen Kontseilu honek. Paul Ortegak erantzun dio Zuzendaritza Kontseiluak eta Legebiltzarrak onartzen dutela. GLEKek planari buruzko txostena eman beharko du, bai. Paulek adierazi du agentziari komenigarria iruditu zitzaiola orientabideak GLEKeko kideei aurkeztea, haien oharrak eta iritziak entzuteko eta plana lantzean kontuan hartzeko. Javier Arellanok esan du, orduan, ohar orokor eraikitzaileak egingo dituela datorren planerako:

Sarrera eta diagnostiko orokorra ondo daudela iruditzen zaio, baina, datorren plana idaztean, egindako baieztapen batzuk aztertzea gomendatzen du, egiten den azterketa sendoagoa izan dadin. Ez zaio iruditzen solidaritatea - indibidualismoaren ardatza ardatz bakarra denik; bere ustez badaude komunitarismo baztertzailak eta abar ere. Eta gomendatzen du sarreraren zatia beste plan batzuetan baino laburragoa egitea.

Garapenerako Politiken Koherentziari (GPK) buruzko erronkei dagokienez, Javier Arellanok uste du egin beharreko ahalegina dela, baina GPK eta lankidetzaren politika bereizi egin behar direla. Espazio garrantzitsuak dira, baina desberdinak. Lankidetzaren politika GPKren zati bat da, baina ez alderantziz. Bi elementu horiek bereizi egin behar dira. Galdetu dute ea GPK Gida Planean sartu behar den, edo bere espazio propio bat izan behar duen. Horrek ere eragina duenez erakundeetan, seriotasunez kontuan hartua izan dadin, gobernu osoaren inplikazioa eskatzen du. Beste sail batzuek lankidetzaren duten parte-hartzea ez da GPK zorrozki.

Javier Arellanok gure lankidetzaren espezializazioari buruzko beste gogoeta batzuk egiten jarraitu du. Uste du merezi duela lankidetzaren politikari laguntza sozialaren bultzada bat ematea. "Eragile berriak hor gaude", esan du. Iruditzen zaio eztabaida eragileetan oinarritzea ez dela ikuspegi egokia. Diagnostikoa eta proposamenak falta direla iruditzen zaio; "zer egin behar dugu euskal gizarte gisa? Zer erronka nagusiri erantzungo diogu, nazioartean gauzatzen den lankidetzaren txikitzea dela kontuan hartuta?". Bere ustez, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) beharrezko erreferentzia dira orientabide gisa, baina ez dira nahikoa; izan ere, edozein gauza egon daiteke esparru horretan, baina espezializazio-maila bat behar dugu. Euskal lankidetzaren erdi-mailako errenta duten herrialdeekin gauzatzen da neurri handi batean, eta zentzuzkoa da hori, haietan baitaude munduko pertsona txiro gehienak. Baina eredu aldutzen ari da (birbanaketa, *policy making* prozesuetan sartzea...). Adierazi du lankidetzak horrelako zerbait hartu behar duela ardatz. Hortaz, eztabaida ez litzateke eragileetan oinarritu behar, zer egin nahi dugun eta horretan zer eragilek lagundu dezaketen aztertzean baizik. "Eragileekin hasten bagara, ez atzera ez aurrera geldituko gara". Iruditzen zaio ardatz interesgarria izango litzatekeela gizarte zibilak

hainbat herrialdeetan egiten duen lanaren sustapenarena eta politikak eta kontrola lantzean gizarte zibilaren eta erakunde publikoen arteko lankidetzarena, eta gure lankidetzaren posizionatzen lagunduko lukeela. Gehiago orientatuko duen zerbait falta da, espezializatuko gaituen zerbait.

Azken ekarpen bat aurrekontuari buruz: Javier Arellanori iruditzen zaio, zalantzarik gabe, ez dela nahikoa izango. “Ez da serioa, edozein irizpiderekin neurtuta ere”, esan du. Uste du Euskadiren ekarpena estandarren oso azpitik dagoela (BPG gisa edo beste edozein irizpiderekin neurtuta). Uste du zinizismoa adierazten duela, aurrekontu-proposamen horrekin, zenbateko absolututan, 2012ko mailara itzuliko ginatekeelako, eta, uste duenez, baita zenbateko erlatibotan ere. Herrialde gisa konpromisoa badugu nazioarteko agendarekin, eta gauza berriak egin nahi baditugu, aurrekontu-zuzkidura horrekin ez dago berritasunak sortzeko aukera handirik. Edozein gauza egin nahi dela ere, baliabideak bideratu behar dira berrikuntzara... Ez du uste aurrekontu horrekin posible izango denik, eta horrek frustrazioa ekarriko duela dio. Bukatzeko, Jauralaritzari eta haren kideei eskatu die berrazter ditzatela zenbateko horiek.

Paul Ortegak esan du bere ustez ez zaiela gogoeta horiei orain erantzuna eman behar. Ohar sakonak direla, interesgarriak, plangintza-prozesuan kontuan hartzeko modukoak, eta egongo dela horretarako aukera. Ekarpenak eskertu ditu.

Jarraian, Iñaki Orubek hartu du hitza. Haren iritziz, lankidetzaren hobetzeko gogoeta-dokumentu bat da, baina ez ditu onartzen ongi egindakoak. Bere ustez, euskal lankidetzaren deszentralizatuaren babes handiagoa egin behar luke. Javier Arellanorekin bat dator, gurea lankidetzaren txikia da, baina baita eredu garria ere; epe luzera lan egiten du, eta ez gerora desagertu egingo diren proiektuetan bakarrik oinarrituta. Berak dioenez, “nik ezagutzen ditudan tokietan, Alemaniako edo Eskandinaviako herrialdeen lankidetzaren maila berean dago, eta emakumeak ahalduz erekin, erakundeak sendotzearekin eta iraunkortasun ekologikoarekin lotutako estrategiak lantzen ari gara, eta ongi ari ere”. Bere ustez, orientabide nagusiek ez lituzkete esparru estrategikoak egin beharreko gai berri bezala aurkeztu behar, proposatzen direnak dagoeneko lantzen ari garelako (emakumeak ahalduz ere, ingurumen-iraunkortasuna...).

Iruditzen zaio dokumentua kritikoa dela eragile sozialekin. Eta, zehazki, “espezializazio mugatua” atala ez du gustuko. Gizarte zibila inplikatu behar dela uste du, eta legitimitate sozial handiagoa izateko lan egin behar dela.

Aurrekontuetako aurreikuspen ekonomikoari buruz, Iñaki Orubek jakinarazi du joan den astean Euskadiko GGKEen Koordinakundeak agerraldia egin zuela Eusko Legebiltzarrean, Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordean. Bere ustez, aurrekontua murriztu egin da ehunekotan 2017rekiko. Eta 2019rako aurreikuspena da 150.000 euro gehitzea; beraz, erlatiboki murriztu egingo da berriz ere. Hori ez zaio onargarria iruditzen, eta hala azaldu zuten Legebiltzarrean. Lankidetzaren Legea betetzetik hurbilago egon ordez, orientabide nagusi horien aurrekontu-aurreikuspenarekin gero eta urrunago gaudela iruditzen zaio. Gogorazi du alderdi politikoek, baita Jauralaritzak ere, beti proposatu izan dutela 0,7a lortzera bideratu behar garelako, urrun bagaude ere. Hortaz, aurrekontu-aurreikuspenak aldatzeko eskaera egin du.

Paul Ortegak azalpen bat eman nahi du: Orientabide nagusiek ematen diote balioa lankidetzaren deszentralizatuari; lankidetzaren deszentralizatuaren balioak eta ereduak aipatzen dira. Iruditzen zaio puntu horretan guztiz ados gaudela. Gai ekonomikoari buruz esan du ikusi beharko dela zer pauso ematen diren aurrekontu-izapideetan puntu horretan. Eta ulertzen duela biek egin duten gogoeta.

Jarraian, Nekane Zeberioek hitz egin du. Adierazi du Arabako Foru Aldundiak azpimarratu nahi duela dokumentu hau bat datorrela Araba Lurralde Historikoaren kezkekin eta orientabideekin: GIH, politika herritarrekin batera eraikitzea parte-hartzearen bidez eta erakundeekin koordinatuta, funtsak ez murriztea... Iruditzen zaio balio hori garrantzitsua dela, erakundeen arteko koordinazioa oso garrantzitsua delako. Adierazi du poztu egiten duela bi erakundeak sintonia onean daudela ikusteak.

Elsa Fuentek hartu du hitza. Adierazi du ez duela ezer askorik aurrekoei gehitzeko, bat datorrelako orain arte hitz egin dutenek esandakoekin. Bere ustez etorkizunerako orientabideen artean aztertu beharko litzateke beste sail batzuek lankidetzan egiten dutena neurtzeko aukera aztertzea, %0,7rantz hurbiltzen joateko.

Paul Ortegak jakinarazi du agentziako memorietan dagoeneko ari direla beste sail batzuen ekarpenak jasotzen. Hona hemen zenbait adibide: Euskadiko Gazteak Lankidetzan, osasun saila, pertsona errefuxiatuen harrera, giza eskubideen defendatzaileen programa, Sahara saila, lankidetzaren linguistikoa... Agian beste dokumentu edo espazioen batean jaso beharko litzateke, eta ez agentziaren memorian bakarrik. Adierazi du, gainera, badaudela aurrekariak GPK plangintzetan lantzeko moduari buruzkoak. Adibidez, ingurumen-estrategian politiken koherentziaren ikuspegia jasotzen duten proiektu giltzarri batzuk finkatu dira. Horrelako zerbait egin ote dezakegun aztertu beharko da.

Elsa Fuentek beste ohar bat eman du. Iruditzen zaio aukeraz betetako une batean gaudela. Bere ustez, Agenda 2030ek ikuspegi eta kritika desberdinak jaso ditzake, baina inor atzean ez uztea aukera bat da. Jaurlaritzaren lanean ari da plan estrategikoen lehentasun horiek jaso ditzaten. Uste du hori lagungarria izan daitekeela beste sail batzuek ere beren ekarpenak egin ditzaten, eta ehunekoetara iristen lagundu dezakeela.

M^a Mar Magallónek proposatu du, gardentasunaren mesederako, interesgarria izango litzatekeela aurrekontu-aurreikuspenetan ehunekoak jasotzea (ez zenbateko osoak bakarrik), irakurleak jakin dezan non dagoen. Edo zenbat izango litzatekeen %0,7arekiko.

3. IV. GIDA-PLANAREN LANKETA

Sofía Marroquínek puntua aurkeztu du, eta Paul Ortegari eman dio hitza. Jakinarazi du batzorde iraunkorraren bileran uste zutela gaurko saioan aztertzeko gai gehiago izango zituztela. Orientabideen prozesua azaldu du, bai eta III. Planaren Ebaluazioarena ere, eta esan du egiteko geratuko litzatekeela IV. Gida Plana lantzeko prozesua. Baina adierazi du, orientabide nagusiak izapidetzeko epea kontuan hartuta, uste zutena

baino beranduago dela. Ziurrenik abenduko bilkuran eztabaidatu eta onartu ahal izango dira.

Aurkezpena banatu da.

Gogorarazi du III. Plana trantsiziokoa zela. Eta oraindik denbora-tarte horretan gaudela. Hori horrela, ebaluazioa estimaziokoa izango da eraginari buruzkoa baino gehiago. Alderdi positiboak eta ikaskuntzak baloratu behar dira, etorkizuneko helburuak hauteman eta planifikatu ahal izateko. Prestakuntzazkoa ere izango da: politika hobetzeko. Bai eta mistoa ere: LGEAren lidergo sendoz, etorkizunerantz begiratzeko.

Laster, galdetegi bat igorriko zaie zenbait eragileri, GLEKeko kide guztiei, Garapenerako Lankidetzaren Erakunde arteko Batzordeko (GLEB) kideei, gobernu-sailei, GLEAri. Denbora bat beharko da galdetegia prest egon dadin, baina elementu garrantzitsua izango da. Paul Ortegak inplikatzeko eta parte hartzeko eskatu die. Jakinarazi du abenduaren 4an lantegi bat egingo dela eragile sozialekin IV. Planerako elementuak biltzeko. Helburua da urte amaierarako prest izatea. Eta urtea amaitzerako orientabide nagusiak onartuta eta ebaluazioa eginda izatea, 2018an IV. Gida Planarekin hasi ahal izateko. Dena den, ebaluazioa bera eta lantegia erabilgarriak izango dira IV. Gida Planaren oinarriak finkatzen hasteko.

M^a Mar Magallónek galdetu du ea eragile sozialei egingo zaien galdetegia erakunde bakoitzeko egingo den edo Koordinakundea hartuko den eragiletzat, eta zein izango den plana lantzeko denbora-tartea.

Paul Ortegak erantzun dio galdetegirako esaten denaren arabera erabakiko dela. IV. Plana egiteko epeei dagokienez: lehenengo hiruhilekoan, edo lehenengo seihilekoan bestela. Abenduaren 15ean data zehatzagoak eman ahal izango dira agian.

Cristina Albak eskatu du argitu dezatela ea Planaren lanketa atzeratzeak eraginik izan dezakeen 2018ko deialdiak atzeratzean.

Paul Ortegak joan den urteko esperientzia ekarri du gogora, aurreko planak luzatu direlarik. Ez du eraginik izango inola ere.

4. GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ANTOLAKETA-ALDAKETAK EGITEKO LANKIDETZA-ERAKUNDEENTZAT FINKATUTAKO LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETUARI BURUZKO AGINDUZKO TXOSTENA ONARTZEA.

Sofía Marroquínek gai-zerrendako puntu honetan hitza hartzeko gonbitea egin die GLEAko Edurne Bengoecheari eta Ana Rojori.

Edurne Bengoecheak, agentziako teknikariak, GBaren zentzu historikoa azaldu du:

- 2014-15ean, ebaluazio bat egin zen ikaskuntzak biltzeko eta dekretua berregokitzeko. Eragileen parte-hartzea eskertu du. GLEAk barne-lana egin zuen, eta hortik jaio zen berregokitzapena.
- Prozesu horiek lau fasetan banatu ziren. Diagnostikoa, plana, ezarpena eta ebaluazioa. Lehenengo biak bakarrik finantzatu ziren. Dekretu berriaren berritasun nagusietako bat da beste bi faseetara ere hedatu dela (diagnostikoa eta plana, elkarrekin, eta ezarpena eta ebaluazioa, elkarrekin; plana edo ebaluazioa bakarrik ez badira behintzat, diagnostikoa eta ezarpena betetzen bada). Bi fase horien definizioa jaso da, eta zer eskakizun bete behar dituzten eta zer ekintza finantzatuko liratekeen adierazi (esperientzia-trukea, planak argitaratzea, esperientziak sistematizatzea, prestakuntza espezifikokoak eta prozesuarekin lotutakoak).
- Aurrekoa hiru ildo estrategikoren inguruan egituratzen zen, baina esperientziaren arabera horrek zaildu egiten zuen. Kendu egin dugu, baina funtsak hor jarraitzen du. Derrigortasuna kendu da.
- Gauzatzeko epeei eutsi egin zaie, ebaluazioan ez delako horiei buruzko ekarpenik egin. Eskakizunak ere antzekoak dira. Kanpo-dinamizazioak beharrezkoa izaten jarraitzen du.
- Diruz lagundu daitezkeen gehienezko zenbatekoak eguneratu egin dira. Diru-laguntzaren gehienezko zenbatekoak handitu egin dira, genero-erreferentearen soldataren zati bat sar daitekeelako.
- Diru-laguntzaren ildo berria ez dakigu nola garatuko den. Fase bakoitzaren zuzkidura deialdi bakoitzean zehaztuko da, ikasten goazenaren arabera.
- Batzordeak/patronatuak ordezkatura egon behar du GIGean.
- GLEAren egoera juridikoaren eguneraketa bat egin da.
- Balorazio-irizpideak ez dira aldatuko. Gehiago zehaztuko da deialdi-aginduan.
- Diru-laguntzen ordainketa: bi ordainketatik bakar batera.
- Aldaketa nabarmenak: aldaketa batzuk egin dira helburuetan/emaitzetan, antolaketa-errealitatera egokitzeko, bai eta aurrekontu-aldaketak ere.
- Antzeko jarraipena batzorde mistoekin. Lehenengo jarraipen-batzorde bat gehitu da, dagoeneko egiten ari direna, eta ikusi da garrantzitsua dela.
- Prozesuaren/tresnaren ebaluazioa. Kendu egin da, baina agian egin egingo da irizpideak finkatzeko.

- Urteko saioa Koordinakundearekin batera, prozesu hauen dimentsio bati buruz: abenduaren 13an eta 14an prozesu horietako erresistentziei eta gatazkak ebazteari buruz.

Ana Rojok jakinarazi du GLEKek aginduzko txostena eman behar duela. Zirriborroa igorri zen, eta epe bat finkatu zen bakoitzak egoki irizten zituen ekarpenak egiteko. Ekarpen bakar bat jaso zen, CEAR Euskadi erakundearena, txostenaren zirriborroan jaso den eran. Orain dagokizuen da CEARren ekarpena jasotzen duen txosten hori onartzea.

Hurrengo urratsak izango dira kontsulta-organo guztien txostenak aztertzea, ekarpenak aztertzea eta zein diren bideragarriak eta zein ez adieraztea, eta memorian eta arrazoietan azaltzea. Ondoren, Legezketasunak eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ere beren txostenak emango dituzte. Prozesu horretan, gerta daiteke aldaketak egitea. Azkenik, Gobernu Kontseiluari aurkeztuko zaio, eta argitaratu egingo da, ziurrenik 2018ko lehenengo hiruhilekoan.

Mila Fernándezek hartu du hitza: GGKEen Koordinakundeak eskerrak eman nahi ditu aldaketa honetan prozesu partizipatiboa egin izanagatik. Ekarpen guztiak baloratu eta kontuan hartu dituztela sentitu dute. Kontuan hartu ez dituztenei dagokienez (erakundeak gutxienez liberatutako hiru pertsona izateko eskakizuna), guztien artean irtenbideak topatzen saiatu dira, erakunde txikiek beste modu batean lortu ahal izateko finantziarioa. Oso egokia iruditzen zaie aldaketa egitea, diagnostikoaren eta parte-hartzearen ondoren erakundeek laguntzeko. Balioa ematen diote prozesu partizipatiboari, jardunbide egokia iruditzen zaielako.

Zuriñe Elordik, Emakunderen izenean, zoriondu egin du genero-ekitatearen aldeko antolaketa-aldaketen prozesuak sustatzeko tresna hau. Iruditzen zaio lankidetzalanean genero-ikuspegia sartzeari bermatzeko modu bat dela. Beharrei erantzuten goazela uste du. Informazioa bidaltzeko egindako aurretiko lana balioesten dute. Argitu du Emakunde nahiago duela gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz hitz egin, ekitatearen alde lan egiteari buruz hitz egin baino. Dena den, ulertzen du agian lankidetzaren esparruan errotutako terminoa izan daitekeela hori.

Aginduzko txostena onartu dute aho batez.

Eduarne Bengoecheak jakinarazi du sozializazio-jardunaldi bat egingo dela dekretuaren berritasunak ezagutarazteko, prestakuntzakoa eta trukekoa, deialdi-agindua aurkeztu baino lehen.

5. EUSKAL LANKIDETZAREN ATARIA AURKEZTEA ETA HARI BURUZ HITZ EGITEA.

Sofía Marroquínek Nekane Zeberiori eta Jorge Gutierrezen eman die hitza; azken hori Hegoa institutukoa da, eta aipatutako atariaren lanketaren arduraduna, eta GLEKeko presidentek gonbidatuta parte hartu du saioan.

Nekane Zeberioek GLEAren, 3 foru-aldundien eta hiru hiriburuetako udalen eta Euskalfondoa erakundearen izenean hitz egin du, horiek guztiek parte hartzen baitute proiektu horretan. Gaur aurreratzen dena proiektu partekatua da, baina oraindik ez da publikoa. Amaierako fasean dago, eta foro honetara ekarri dute ezagutarazteko eta modu ez formalean baliozkotzeko. Helburua da parte hartzen duten erakundek finantzatutako proiektuei buruzko informazioa jasoko duen Web-tresna bat sortzea. 2014-16ko informazioa jasotzen du, eta urtero eguneratuko da informazioa. Erraz erabiltzeko modukoa da. Urte batetik gorako prozesu bati esker sortu da, eta lan gogorra izan da, irizpideak, nomenklatura eta abar bateratu behar izan direlako. Duela bi urte hasi ginen guztion artean proiektu hau eraikitzeko urrats sendoak egiten. Helburuek duela zenbait urte hautemandako beharrei erantzuten diete: euskal lankidetzaren publikoaren ikuspegi oso bat, herrialde-ikuspegi bat, emateko beharra; eragileen artean informazioa trukatzekoa; gizartearen aurrean ikusgai jartzekoa; lankidetzaren moduak sakontzekoa; eta gardentasuna areagotzekoa eta kontuak ematekoa.

Orain Jorge Gutierrezek emaitza teknikoak aurkeztuko duela esan du, eta irismen luzeko tresna dela azaldu du. Beste erakunde batzuen informazioa ere sartu nahi dute (lankidetzaren gauzatzen duten beste udal batzuenak), eta, horrela, irudi komun eta partekatua bat osatu.

Jorge Gutierrezek tresna aurkeztu du: 2014an, 2015ean eta 2016an abian izandako ekintzak biltzen dituen datu-base bat da. Milaka proiektu daude. Web-orria ele bitan dago. Zenbait nabigatzaileekin funtzionatzen du. Gerta daiteke oraindik deskonfigurazio-akatsen bat gertatzea, edo zuzendu gabe dagoen datuen bat agertzea; horiek guztiak berraztertuko dira publikoki aurkeztu baino lehen.

Elkarren artean lotutako hiru atal ditu: eragileak: parte hartzen duten erakundeei buruzko informazio praktikoa; grafikoak eta analisiak: erabiltzaile aurreratu batek bere analisiak egin ditzake erakundearen eta proiektuen informazioarekin, baina ohiko grafiko batzuk ematen dira; proiektu-bilatzailea.

- (i) Erakunde bakoitzaren oinarriko informazio garrantzitsurako sarbidea ematen du: zuzenean haren web-orriaren garrantzitsuen loturak. Urteko datuen erlantz gehiago (aurrekontua, konprometitua, ordaindua, modalitateak, erakundearen aurrekontu osoa, mapa).
- (ii) Aurreikusitako sei aukera. Edonola ere, beti jaitsi ahal izango da informazioa CSV-n.
- (iii) Proiektu-bilatzailea: mapa eta bilatzailea.

Zertarako erabil daitezkeen: alderatzeko aukera ematen du, datuak eskuragarri jartzen (gardenetasuna dago euskal lankidetzaren, baina batzuetan pdf-n...), eraldaketa sozialerako hezkuntzako ekintzen sailkapena. Guztia bateratzeak ahalegin handia eskatu du, baina espero dugu erabilgarria izatea. Hobetzen joango da erabiltzen doan heinean.

Nekane Zeberioek jakinarazi du lehen hiruhilekoan sarbide publikoa izango duela tresnak.

Egindako galderei erantzunez, jakinarazi dute bigarren fasean beste udal batzuk sartzeko joango direla pixkanaka. Gai tekniko batzuei buruz ere galdetu dute. Azkenik, zorianak eman dizkiete atariagatik. Oso garrantzitsutzat jo da.

6. EUSKADIKO GGKE-en KOORDINAKUNDEAREN “EUSKO JAURLARITZAREN ENPRESA-NAZIOARTEKOTZERAKO POLITIKAREN ANALISIA” IKERLANA AURKEZTEA ETA HARI BURUZ HITZ EGITEA.

Sofía Marroquínek Gonzalo Fernández aurkeztu du; GGKEen Koordinakundearen proposamenari jarraikiz presidenteak gonbidatuta parte hartu du saioan. Sofía Marroquínek, Koordinakundeko presidente den heinean, txostenaren jatorria azaldu du. Garapenerako lankidetzaren sektoreko eragile nagusietako bat dira, eta politika publikoen artean koherentzia falta sumatzen dute: beren lurraldeetatik kanporatutako jendea, ingurumenean eragina, giza eskubideen urraketak. Gogorarazten du Eusko Jaurlaritzak GPKren erreferentzia-esparrua onartu zuela, eta nazioarteko politika publikoetan giza eskubideekin eta iraunkortasunarekin lotutako irizpideak kontuan hartzeko konpromiso politikoa hartu zuela. Adierazi du OMALen laguntza izan dutela. Eta esan du ikerketaren xedea ez dela eragina baloratzea, baina bai politika abiaraztean finkatzen diren helburuak, estrategiak, planak eta asmoa. Lehenengo sargai bat da, baina hemendik aurrera egiaztapenerako eta lanerako tresna izango da.

Gonzalo Fernándezek ikerketaren ondorio nagusiak aurkeztu ditu, lau ataletan banatuta: erreferentzia-esparrua; aztergaia; ondorioak; gomendioak (gogo positiboa).

Aipatu du Eusko Jaurlaritzak 2016an onartutako GPKri buruzko erreferentzia-esparrua berenganatu dutela, eta oso garrantzitsutzat jotzen dutela. Bost ideia nagusi nabarmentzen dituzte: (i) gizakien garapena eta iraunkortasuna Eusko Jaurlaritzaren politika publiko osoan hartu beharko lirake kontuan; (ii) lehentasuna eman behar zaio desberdintasunak desagerrarazteari eta iraunkortasuna bermatzeari, beste aldagai guztien gainetik; (iii) kontuz lehiakortasunaren zentzu zorrotzarekin, eraginkortasun sozialarekin eta ekologikoarekin lotu behar da; (iv) politika publiko orok guztion ongizatean oinarritu behar du; (v) erakundeen konpromisoa eta konpromiso soziala.

Aztergaia da GPK maila baloratzea enpresen nazioartekotzean. Izebergaren punta bakarrik da, aztertu beharko litzatekeenarekin alderatuta. Honako hauek aztertu dira: eragileak, zer egituratan ematen den, dokumentu estrategikoak, zer tresnaren bidez gauzatzen den (diruz lagun daitezkeen ildoak, diplomazia ekonomikoa, ahalmenak sendotzea). Ez dago aldundien eta udalen ikuspegiarik, euskal politikaz hitz egin ahal izateko. Bi ildotan oinarritu dira: ondasunak eta zerbitzuak esportatzeko laguntzak eta atzerrian ezartzeko laguntzak, baina ez inbertsioak erakartzeko. Eta ez dira eraginak neurtu. Ez badira politikan klausulak ezartzen, oso zaila izango da enpresek beren borondatez finkatzea.

Ondorioak: 18 irizpide sozial, ekologiko eta genero-irizpide lantzen dituzte.

Txostenean diote koherentzia ikusten dutela eragileen, estrategien eta tresnen artean, baina ez lehiakortasunean, merkatuak erakartzean eta enpresen irabazietan, EAEn enplegua sorrarazteko asmoz. 2014-16 tartea aztertu da. Lanarekin, gizartearekin eta eskubideekin lotutako irizpideetatik kanpo geratzen den politika bat dela ikusi dute, irizpide tekniko enpresariari ematen zaiela lehenetasuna, eta guztion mesedea bilatzeko logika falta dela. Lehenetasun geografikoak: enpresek eskubideak urratzeagatik salaketa ugari dituzten herrialdeak; baina ez du inolako kontrol-irizpiderik finkatzen zentzu horretan. Eragile-esparru oso mugatu batekin abiarazten da politika. Ez da sartzen sindikaturik, gizarte mugimendurik edo GGKERik erabakiak hartzeko eta gauzatzeko egituretan. Nazioarteko lankidetzan lehenesten diren irizpideak enpresak nazioartekotzeko politikan lehenesten direnen aurkakoak dira. Analisi horretan, ez da betetzen GPKren esparrua.

Azterlanaren proposamena:

1. Asko dago aztertzeke. Aztertu beharreko gaietako bat da ea badagoen asmorik aldundiak eta udalak barneratzeko, inbertsioak erakartzeko politika aztertzeke, eraginak aztertzeke, eta Kolonia eta Mexiko proposatzen dira.
2. Enpresaren eta giza eskubideen euskal zentro bat abiaraztea, Eusko Legebiltzarrak dinamizatutakoa, sektore garrantzitsua dela iruditzen zaielako. Klausula sozialen gardentasuna, jarraipena eta kontrola bermatuko luke politiketan.
3. Eragile-esparrua zabaltzea.
4. Laguntzak esleitzeko irizpide garbiak finkatzea, horiek betetzen ez dituztenek ez ditzaten lortu (ingurumen-eraginaren azterlanak, paradisu fiskalak, nazioarteko krimenak Erromako Itunaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, lan duina...). Gutxienez %40k kontuan hartu beharko lituzke irizpide horiek. Enpresen erantzukizun sozialeko programa batek kontuan hartu beharreko 2 puntu bakarrik aztertzen dira.

Koordinakundeak edizio laburtua banatu du paperean. Ikerketa osoa formatu digitalean bakarrik eskura daiteke webgunean.

Paul Ortegak hartu du hitza, eta eskerrak eman ditu azterlana egin izanagatik. Iruditzen zaio azterlana deialdietan sartzen dela, baina funtsean uste du GLEAk duela zenbait urte Hegoari eskatutako GPKri buruzko azterlana iritsitako lekuetara iristen dela. Zati handi bat aztertuta zegoela. Garrantzitsua iruditzen zaio gogoraraztea Eusko Jaurlaritzaren GPKri buruzko erreferentzia-esparrua 2016ko apirilekoa dela, eta oraindik gorpuzten ari dela. Azterlanak aurreko planak aztertzen ditu, aurreko legealdikoak. Orain ikusiko dugu berdin jarraitzen dugun ala ez. Datozen urteotan berrikusten diren planak eta politikak aztertu beharko dira. Interesgarria izango litzateke ikustea ea honen antzeko azterlan batek antzeko emaitzak emango lituzkeen, demagun, hemendik bi urtera.

Paul Ortegak uste du, gainera, gehiegi azpimarratzen dela politiken arteko diskurtso/hizkera desberdinaren gaia. Garrantzitsuagoa da gauza errealak aztertzea.

Enpresa-politika batek (eta, beraz, haren dokumentuek) ez dute erabiliko beste esparru batzuetan erabiltzen dugun hizkera bera. Zer egiten den da garrantzitsuena. Adierazi du, adibidez, euskal lankidetzaren aurrerakoiak dela diskurtsoan, baina errealitatea ez dela horrenbestera inoiz. Interesgarria eta garrantzitsua iruditzen zaio gai horiek aztertzea, baina uste du are interesgarriagoa izango litzatekeela aztertzea zer ari diren egiten euskal ETEak testuinguru horietan.

Elsa Fuentesek esan du oraindik dokumentua irakurri ahal izan duela. Tresna aparta iruditzen zaio GPKren alorrean aurrerapausoak ematen eta 2030 Agenda gauzatzen jarraitzeko, hori ere enpresa-jarduerarako gune izanik. Gaitasunaz hitz egiten da, baina eskubideen ikuspegitik izan behar du. Eskerrak eman ditu lanagatik. Eta Gonzalo Fernándezek ere eskerrak eman dizkio aurkezpenagatik.

Natalia Rodríguezek Paul Ortegarik erantzun dio. Esan du nahi lukeela hemendik sei hilabetera etorri eta azterlan hori zaharkituta geratu dela esan ahal izatea, giza eskubideen parametro horiek Eusko Jaurlaritzaren planetan sartu direla. Azaldu du azterlan honekin lan-tresna bat jarri nahi zutela erakundearen eskura, badakitelako ikuspegi hori beste arlo batzuetara hedatzea oso zaila dela.

7. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK

GLEK-en hurrengo bilkura noiz izango den jakinarazi da: abenduaren 15ean.

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, amaitutzat jo da bilera 14:00etan.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUAREN
IDAZKARIA**

SOFÍA MARROQUÍN GUERRERO

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUAREN
PRESIDENTEORDEA**